

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Produktuak erosten dituzunen (garagardo botilak), hurrengo erosketa egin nahi duzunean, deskontu bat egingo litzaioke bezeroari. Kontuan hartu beharrekoa hau da. 30 egun baino lehenago egin erosketa, aukera edo deskontu hori "anulatu" egingo litzatekelako.

Udaran merkeago jarriko genuke jendeak garagardo gehien edaten duen garaia delako. Urteko egun jakin batzuetan deskontu berezi batzuk egingo genituzke. Adibidez, udaran, gabonetan edo "black friday-en".

Udarako deskontua: Kaxa 1 (6 Botilako KAXA), erosten baduzu botila 1 dohain.

Gabonetako deskontua: Egongo den deskontua, 5 Kaxa erosi ez gero, Kaxa bat dohain eramateko aukera egongo da. Baita ere, bidalketak, gastu gabeko etxez etxeko zerbitzua izango da.

Black Friday deskontua: %50-eko deskontua, black friday-en.

Aste santuetako deskontua: APARRA astea egingo genuke, hau da, aste betez deskontu berezi batzuk egingo genituzte.

Hau dena dela eta, guk uste dugu bezeroak erakartzeko metodoa ona dela eta bezero berri asko ezagutzeko aukera izango dugula.

